

Irrintziren txirrindu festa

Haur eta gazte ugari bildu zen ▶ 7



Cerezo-Huarte izan dira garaile Garziandia Pilota Txapelketan

TOLOSA ▶ Finalean 22-15 irabazi diete Mikelperizena eta Huarteri; Ontsaloko aresoarra 3. gelditu da ▶ 7



Lau bikote finalistak antolatzaile eta laguntzaileekin; txapelekin Cerezo eta Huarte irabazleak. JAIONE ASTIBIA

NOELIA LATABURU



Aukera asko izan arren, berdinketa Berazubín

TOLOSA ▶ Bana bukatu zuen Tolosako Mutrikurekin; hiru aldiz langan eta behin zutoinean jo zuten baloia tolosarrek ▶ 6

www.saldias-miguel.com

Saldías Miguel Kotxe aseguruetan %60 ko beherapenak

- AUTOAK
- ENPRESAK
- AUTONOMOAK
- MOTOAK
- DENDAK
- MOTA GUZTITAKO
- ETXEAK
- ISTRIPUAK
- ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 12 behea • 20400 Tolosa • Tel. 943 651189/ 943 653462 - Faxa: 943 653462

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Irailerako 6 berriak, «musikaz gozaten»

Hilaren amaieran hasiko dira ▶ 2-3

ANGEL YAÑEZ ▶
ALDERDI POPULARRA

«Osasun demokratikoa eskuratu behar dugu»

Aldaketa PSE-EErekin lortu nahi du ▶ 4



LEIRE MONTES

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA R.P.S 401/04

KONTSULTAK

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarrien ondoan) • TOLOSA EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24

UZTURRETIK ▶
KRISTINA URRUTIABere
kintoa
zen

Ez zen mundu osoan ezagun, Aita Santua bezala. Ez zen poloniarra, goizuetarra baizik. Are gehiago, emakumea zen gainera... baina bazuten berdintasun bat: urte berean jaiotakoak ziren biak, 1920an. Ekainean egiten zituen 85 urte nire amonak, eta Joan Pablo II.ak berriz maiatzean bete-ko zituen.

Amonak, fededuna izaki bera, askotan begiratzen zion Aita Santuari. Telebistan ikusten zuen bakoitzean esaten zuen: «hori nere kintoa da».

Askotan entzun nion hori esaten eta askotan gogoratu naiz nire amonaz egunotan.

Nire amonak ez zuen halako oihartzunik izan munduan, baina bai etxean eta familian, indar handiko emakumea izan baitzen bere bizitza osoan. Herri osoari jaten emateko adina bazkari prestatu zituen bizi izan zen bitartean, lana ere gogotik egin zuen, baina beti izan zen amona goxoa. Jendaurrean zein etxeko sukaldean amona elegantzia eta goxotasuna zituen hark.

Nolako gizona izan ote da ordea Karol Wojtyła? Jende askok ikusi du bere lanean, batera eta bestera. Ez ditu alferrik ehundik gora bidaia egin atzerrian barrena! ... Baina nolako ote zen egunerokotasunean? Amona bezain goxo eta xumea ala jenio biziko erretxina izan ote da? Pertsonaia askorekin izaten dut jakinmin hori, baina ezin ase. Eta kasu honetan ere ez dut deus argituko. Ezta beste askok ere, bere idazlan eta paper guztiak erretzeko eskatu baitu Aita Santuak. Eta bere nahiak aginduak direnez, halaxe eginen da.

Ez dakit zer esanen zuen nire amonak, egunotan Vatikanoetik eman dituzten demasako irudiak ikusi izan balitu. Baina bukatzeko beti bezala, zera esanen zuen: «Hori nere kintoa zen».



Unai Otaño ibartarra aizkora apustuak irabazten hasi da

ASTEKO IRUDIA ▶ Xabier Mindegia nafarraren aurka irabazi zuen joan zen igandean bere lehen aizkora apustua Unai Otaño gazte ibartarrak. Azkenaldian indar berezia hartu du herri kirol

honek eskualdean, ibartarrarekin batera Joseba Otaegi eta Juan Manuel Erasun zizurkildarrak eta Jon Rekondo leiztarra ari dira aizkora lehiaketetan. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

IRAILERAKO 6 ▶ MUSIKA TALDEA

«Musika jotzen gozaten
dugunez, ezin genion
aukera honi muzin egin»

Euskarazkoak izango dira zuzenekoetan eskainiko dituzten kantu gehienak, baina bestelako hizkuntzekin ere ausartuko direla adierazi dute Irailerako 6 taldekoek

IRATXE ETXEBESTE

Desagertzen ari dira azken urteetan herri bateko eta besteko plazetan jardun izan duten berbera taldeak. Akelarren agurrak zeresan handia eman du, adibidez, talde hori izan delako ibilbide oparoena izan duenetako bat. Ordea, sortzen ere ari dira batzuk. Izena ez du berria, baina taldekideak bai. Aurretik hainbat musikaririk jardun ostean, Nerea Erbiti leiztarra (trikitia eta ahots nagusia), Garikoitz Arabolaza oiar-tzuarrak (kitarra eta ahotsa), Nerea Urbizu lekunberriarrak (teklatura eta ahotsa) eta Tolosaldeko Itsaso Etxebestek (baxua eta ahotsa) eta Gorka Otamendik (bateria) osatzen dute

egun Irailerako 6. Talde gaztea da, lehendik ere musika munduan eskarmentua duten musikariek osatutakoa. Hil honen amaieran eskainiko dute lehen kontzertua, eta horretarako ari dira prestatzen. Hernialden egin dute hitzordua aste honen hondarrean HITZAREKIN. Tribulistas-en *Ja sei namorar* bertsiio polita eskaini diote. Eta beste batzuk... Egun euritsua egokitu zaie.

Lehen ere bazen Irailerako 6. Izen horrekin ariko zarete...

Iraierako 6 ez da berria, baina taldekide guztiak bai. Taldeko arduradun eta teknikari Imanol Aranburuk nahi zuen talde berria sortzea izen hori mantenduta, eta gurekin jarri zen harremanetan. Batak bestea

ezagutuz, kontaktuan jarrita... lortu dugu guztiok elkartzeta eta taldea osatzea.

Lehenengoaren ildotik ari al zarete kantuak prestatzen?

Proiektu berria da erabat. Dena artean proposatutako kantuak biltzen ari gara, errepertorio zabala osatu nahi dugulako. Ez gara inolako talderen jarraitpena eta ez gara haietako batean oinarritu.

Eta zer eskainiko duzue?

Gure erara ari gara abestiak hautatzen: *modan* dauden kantuekin, klasikoekin, gehien entzuten direnekin... Euskarazko kantuak izango dira gehienak, baina bestelako hizkuntzekin ere ausartuko gara. Zuzenekoetan ondo pasatu nahi dugu, eta jendeari hori transmititze-

ko asmoa dugu, gurekin batera, haiek ere gustura egon daitezen.

Plazako giroak behera egin du nabarmen azken urteetan.

Tabernetan gero eta musika ekipo hobeak daude, eta jendea ez da plazara hurbildu ere egiten. Alde horretatik, gutxietsi egiten da bertakoa. Ez dira konturatzen zer nolako lana dagoen horren atzean; musikariak ez dira behar bezala baloratzen.

Nola konpondu daiteke hori?

Kontzientziario kontua da finean, eta horretan guztiok dugu zer egin: udalek, musikariek, entzuleek...

Plazetako egoera beltza izanda, nolatan ausartu zarete talde berria sortzera?

Udan lana egin nahi izatekotan, non hoberik gustuko duguna egiten baino? Musika jotzen gozaten dugunez, ezin genion aukerari muzin egin. Badakigu egoera latza dela, baina saiaturko gara, ahalik eta lan txukunena eginez, jendea erakartzen.

Entseguak non egiten dituzue?

Hernialden, Imanolek utzitako lokalean. Astean bitan elkartzen gara, bakoitzean hiru bat orduz aritzeko. Izan ere, oso denbora tarte eskasarekin hasi gara lanean. 60 bat kantuko errepertorioa lantzea nekeza



KIKE AMONARRIZ
SOZIOLINGUISTA

«Gazte hizkera ezin daiteke zuzena izan, beti da boterearen hizkuntzaren kontrako hizkera errebeldea»



VALENTÍN DORRONSORO
MASAJISTA (DISCOVERY CHANNEL)

«Armstrong normala da, beste bat; taldean 16-17 herrialdeetako jendea daukagu»

IRITZIA ▶ JOXE AGUSTIN ARRIETA EGIGUREN (IRAKASLEA)

Aita Santuari gutuna

Anaia Juan Pablo: Ohorea eta errespetoa, mirespena eta ausardia izan dira zugan ikusi izan ditudan bertuteak. Beti gizon apala, zabala, irribarretsa, jendearekikoa —mediatikoa esaten dute adituek— somatu izan zaitut, ebanjelio zalea, Jainko maitalea. Agian norbaitek esan dezake normala dela gizon erlijioso batean, baina beti figura handia bezala somatu izan zaitut. Ez dakit une honetan gutun hau idaztea zilegi ote den, halere maite izan zaitudalako jarraitu nahi dut.

Esan didate zutaz zerbait idazteko eta pentsatu dut eskutitza eran lerrokada hau adieraztea. Niretzat gizon handia izan zara, baina kontraste eta gorabehera askorekin.

Gizarte arloan jarrera irekiak izan dituzu:

- Gerra eta gatazka armatuak gaitzetsi dituzu.
 - Munduan goseak daudenean alde ere eskatu duzu.
 - Misiolariak oso maitekor izan dituzu, eta batez ere Hirugarren Munduan.
 - Eta giza eskubideen defendatzaile sutua izan zara.
- Baina eliza barneko arazoetan oso bestelako ikusi izan zaitut:

- Oso kuria zalea nabaritu zaitut. Dena Erroma omen da, eta non dago elizbarrutien autonomia? Non gotzainen sinodoaren oparotasuna? Non tokian tokiko elizen autonomia? Benetan oso erromatar zentralista ikusi izan zaitut eta gu ez al gara kristau katolikoak, hau da, unibertsalak?

- Bestalde, erlijio ezberdinen arteko harremanak ez dira batere indartu, Asisko topagune hura izan ezik. Gainera, kuriak erlijio ezberdinen arteko harremanak sustatzearen aldeko teologoak isilarazi egin ditu. Eta zer esan ekumenismoari buruz? Jakin beharko da elizek elkar onartzen ahal duten eta ez inor besteen gainetik jarzaten?

- Elizaren berrikuntza atzeratu egin da. Non dago liturgia berria eta eguneratua?

Non emakumearen parte-hartzea eta ardura eta ministeritzak eskaintzea? Non hautazko ezkongabetasuna edo zelibatua apaizen kasuan? Eta ote da beharrezkoa azterketa eta elkarrizketa zabala homosexualitateari buruz eta jaiotze-tasak kontrolatzeko metodoei buruz?

Agian galdera gehiegi. Barka nire ausardia eta atrebentzia, baina badakit zeru horretatik guzti honen berri baduzula, badaikit aldaketak kolpetik egitea zaila dela, baina nahiko nuke Erroma utopiaren hiria izango litzateke, Erromako kuriak itzal gutxiago izango balu eta gotzainek nortasun handiago; kardinalak edo *eliz printzeak* desagertuko balira —Jesusen nahi ote zuen hori? Kardinalak Jesusek jarriak ote dira?—, eta azkenik ez nuke nahi Aita Santua estatuburu izatea.

Elizako hainbat gauza gogoratu izan dituzte hileta ondoren, eta baita aurrez irakurria nuen zik idatzitako gutun-entziklika, *Ut unum sint*. Halere, nire errespetoa eta begirunea. Eskerririk asko berandu bederen egin zintuzten barkamenezko eskaerengatik; ez da gutxi, baina ezta asko ere. Herenegun kristau apala bezala otoitz egin nuen, nire bihotzean txoko bat beti izan duzulako. Goian bego, Juan Pablo II.a.

BARNE ARAZOAK

«Eliza barneko arazoetan oso bestelakoa ikusi izan zaitut: oso kuria zalea, erlijioen arteko harremanak ez dira indartu eta elizaren berrikuntza atzeratu da»



PERTSONALKI ▶

▶ 21 eta 24 urte bitartekoak
▶ 3 neska eta 2 mutil ▶ Bi nafar eta hiru gipuzkoar ▶ Elkar ezagutzen zuten batzuek; besteak entseguetan izan dute aukera ▶ Hilaren 27an hasi, eta uda bukaera arte jardungo dute Euskal Herri osoan kontzertuak ematen ▶ Irailerako 6 musika taldea osatzen duten aurpegi berriak dira.

Musikari edo talde bat? Aitor Gorosabel (Gari); Sting (Gorka); Erykah Badu (Nerea E.); Skunk Anansia (Nerea U.); Richard Bona (Itsaso). **Euskal kantu bat?** Gari-ren *Bizitzak* (Nerea E.); Su ta Gar-en *Itxaropena* (Gari); Berri Txarrak-en *Zelda* (Nerea U.); Itoiz-en *Elurretan* eta beste batzuk (Itsaso); ez naiz sekula kantu baten bila jarri... (Gorka). **Musika estiloirik gogokoena?** Pop-rock-a (Nerea U. eta Gorka); jazz-a (Itsaso eta Nerea E.); funky-a (Gari eta Itsaso).

da baldintza horietan; soinu konpaktua lortzeko berebiziko garrantzia dute entseguak. **Lehen kontzertua, noizko?** Hilaren 27an dugu lehena Errespalditzan (Araba). Ondoren Barakaldon (Bizkaia), Mutiloan (Gipuzkoa), Igorren (Bizkaia)... Ditugunez gain, eskaintza gehiago ere etorriko direlakoan gaude.

Berbena talde batean jardutea bateraezina al da bestelakoetan aritzearekin? Inondik inora. Gutako batzuk aritu izan gara edo aritzen gara beste talde batzuekin jotzen: Trikizio eta Incansables txaranga (Gorka); Xuhat eta Itzalak (Nerea E.); Xuhat, Blues Company, Alurr eta Bilboko hainbat talde (Itsaso); Itzalak

eta bikote gisa klasikoak jotzen (Nerea U.) eta lagunartean, herriko jaietan... (Gari). **Eta bestelako proiekturik baduzue eskuartean?** Helburu bera dugu denok: ikasten jarraitzea, eta, ahal bada, musikarekin bizitzea. Pop-rock talde bat sortzeko asmoa dut lagun batzuekin (Gorka); Itzalak-ekin jarraitu nahi dugu


(Nerea E. eta Nerea U.); kantuen sortzen ari gara talde berri baterako (Itsaso eta Nerea E.); nik deus ez oraingoz (Gari). **Euskal musikaren egoeraz zer esango zenuket?** Musikaren egoera kaskarra da orokorrean, eta, euskal musikaren merkatua txikiagoa denez, are txarragoa. Pirateria kalte latza egiten ari zaio musi-

kari, aurrerantzean *single*-ek funtzionatuko dute: urteko kantuek urteko diskoak ordezkatuko dituzte, eta musikariaren egoerak ere okerrera egingo du horrexegatik. Horrez gain, zuzeneko emanaldietara gero eta jende gutxiago joaten da. Egia esan, kezkatzeko moduko da musikaren eta musikariaren egungo egoera.

ANGEL YAÑEZ ▶ PP-KO ZINEGOTZIA TOLOSAKO UDALAN

«Egungo gobernua aldatu behar dugu osasun demokratikoa eskuratzeko»

Nazionalismoa ez dela ordezkazina dio Yañezek; aldaketa «gu bezala» askatasunik gabe bizi direnekin, PSE-EErekin, lortuko dutela ziurtatu du



LEIRE MONTES

NOELIA LATABURU

Angel Yañez Partido Popularreko (PP) zinegotzia da, Tolosako udaletxean. Aldaketaren aldeko apustua egiten du irmoki apirilaren 17ko hauteskunderen, denak «askatasunean» bizi ahal izateko.

Nola baloratuko zenuke Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuaren lana azken legegaldian?

Niretzat pertsonalki etsipen handia suposatu du, hainbat alor jorratu dituzten arren. Funtzio nagusia baztertu dute, izan ere ez dute inolako indarrik jarri askatasunean bizitzeko ahaleginak egiterakoan; hori dela eta, nire burua abandonaturik ikusi dut. Gobernuak bultzatu duen lan bakarra estatutu berria izan da. Herri honek duen arazo bakarra ETaren presentzia da, eta gogor egin behar da lan haren aurka. Honek huts egiten badu gainontzeko alorren garrantziak ez du zentzurik.

Eta nola garatu da PPK oposaketatik burutu duen lana?

Nire alderdiko kideen lana, beraiek dituzten baldintzetara egokitu da, gobernua dituenaren erabat ezberdinak direlarik. Beraz, nahikoa egin dute PPKoek, euren lana ez baita inoiz ezagutzera ematen komunikabideetan, gobernuarena ez bezala. Alderdi honetan ere gaizki hartuak sentitu gara.

Zeitzuk dira PPK jorratzen duen programaren ildoak?

Gure programak alderdi garrantzitsu guztiak hartzen ditu, ezaugarri ezberdin batekin: helburu nagusia denontzat askatasun demokratikoa lortzea da. Askatasunaren balorea beste guztien gainetik ezartzen dugu, babestuta bizitzeko beharra izan ez dezagun. Askatasunez bizi nahi dut, eta behin hau lortuz gero, hainbeste aldiz errepikatzen den independentziak jardungo dugu, inorren bizi arriskuan jarri gabe.

Maria San Gilek zer eskaini dezake lehendakari bezala?

Berrikuntza izugarria. Emakume izateak ere helburu nagusia baieztatuko luke, aldaketa lasai bat erdi lokaturik dagoen herri honek duen behar-runtz. Maria San Gil behar-beharrezko aldaketa da eta hau aurtur burutzea espero dut. Argi dago aldaketa eman emango dela, izan ere politikarentzat ez da batere osasuntsua EAJ boterean betirakotzea, eta beraiek kontrakoa uste duten arren, ez dira ordezkazinak. Agintean eman dituzten urte guztietan zehar argi utzi dute aldaketa bat behar dela eta San Gil da, hain zuzen ere, aldaketa hori osasuntsuen burutuko lukeena eta herri honetara lasaitasuna eta normaltasuna ekarriko litzukeena, bere hitza betetzen baitu.

«Denona. Denontzat». Hori da PPrek eslogana. Nazionalistak ere zaku horren barnean izango al dira?

Ez dago duda izpirik ere horretan. PPK orokorrean eta San Gilek lehendakari bezala guz-

tientzat gobernatuko du, ez duelako nahi besteentzat berak bizi izan duena; horregatik, nazionalismoa oposizioara pasatzen denean ez du at utziko. Bera oso argia izan da: askatasuna lortu behar da, gurekin batera askatasunik ez dutenekin, hau da, PSE-EErekin, gainontzekoak baztertu gabe.

PPren kanpainak gogor egin du Ibarretxe planaren aurka.

Plan hau zentzugabekeria hutsa da. Berriz ere sartzeko atara nahi duen plan honen gaitz handiena zera da, norekin izan den hitzartua, ETaren lagunak hoberenekin, alegia. Ezbairik gabe, azken gobernuaren porrotarik handiena izan da.

75 eserleku. Emaitzak iragarritzaera ausartuko al zinateke, EAEn eta eskualdean?

PPk gehiengo lortzea zaila da, baina EAJ-EA koalizioak ere zaila izango du. Nire ustez, PPK PSE-EErekin gehiengo lortzeko adina bozka lortuko ditu. Ez dago inongo aurre hitzarmenik, baina gure alderdiak argi du legalki oraingo gobernu boteretik baztertu behar dela, osasun demokratikoa berreskuratzeko. Eskualdeko emaitzak antzekoak izango dira.

Dena den, inkestek diote PPK bozkak galduko dituela, PSE-EEren mesederako.

Aitzitik, kontrakoa gertatuko dela uste dut, beraz, ez diet inkestei kasurik egiten. Alderdi nazionalistan galdutako behar dira benetan bozkak, izan ere nazionalistek bozkatzen dion jende asko nekatuta eta lotsatuta dago dagoeneko. PPK har ditzake bozka hauek guztiak.

18an hasiko dira alderdien arteko lehen koalizioak.

Alor honetan balizko aukera bakarra ikusten dut: PP eta PSE-EEren artekoa, alegia. Dena, den, bozkek diotenari itxaron beharko diogu.

Bi alderdi ezingo dira aurkeztu. Demokratikoa al da hau?

Ez naiz legegizona, ez eta politikoko profesionala, ondorioz, ez naiz gai epaile batzuen erabakiaz jarduteko. Batasuna ilegalizatzeko erabakia hartu zutenek jakingo dute arrazoia bai eta AG plataformak demokratia suntsitu nahi duela diotenek ere. Bi alderdi hauek erein dute hau guztia, haien eta gilezarte guztiaeren kalterako.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Baliarrain. Medikua: 88 90 03

Berastegi-Elduain. Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Orendain. Medikua: 65 55 95

Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarrendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona. Anbul.: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerbitzua:

693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttopa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz, I. Euskal Herria 3

(Ibarra). 943 67 09 15

Larraia, M. I. Elbarren 95.

(Leitza). 112

Bihar. Tolosa, M.I. Kale Nagusia

7 (Tolosa). 943 67 06 48

Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

GIZARTEA ▶



Luis Mari Intza erlezain tolosarrak Berrobin dituen erlauntzak. Bertatik atera daitezke produktu onuragarri eta naturalenak. HITZARI

Eztiaren gozoaz haratago

Luis Mari Intza erlezain tolosarraren hitzetan «erlauntzetatik lortzen diren produktuak benetan onuragarriak dira gizakiontzat eta naturarentzat»

IÑIGO ASENSIO

Aintzinatik datoz gizakiok erleekin mantendu dugun harremanaren aztarnak. Erleek 150 milioi urte inguru daramatzate lurrean, hala ere, gizakiarekin izandako harreman horren aztarnak duela 12.000 urte ingurukoak besterik ez dira. Valentziako Bicornio herriko Araña kobazuloetan aurkitu ziren duela urte batzuk harreman honen adibide diren eredu batzuk. Kobazulo hauek, ezitia jasotzen ari diren gizakien marrazkiak ikus daitezke, nahiz eta irudi horiek marraztuak izan ziren garaia ez dagoen guztiz zehazturik. Azterna zehatzagoak ere badaude, garaiari dagokionez behinik behin. Egiptoko piramideetan aurkituriko jeroglifikoek, erleen produktuen ustiaketa aintzinatik datorrela erakusten dute, k.a. 1500. urtekoak baitira hain zuzen ere, ezti produktuen irudiak erakusten dituzten jeroglifiko hauek.

Historian aurrera eginda ere, badira erleek gizakion bizitzari eginiko mesedeen arrastoak. Hipocrates sendagile greziarrak, k.a. 480. urte inguruan erabiltzen zuen ezitia gaixotasun eta zauriak sendatzeko.

Luis Mari Intza erlezain tolosarrarekin hizketan aritu on-

doren, erlauntzaren funtzionamenduaz gain, erleen produktuek osasunerako eta naturarako egiten duten mesedea ezagutzera eman dio HITZARI.

Erlauntzaren antolaketa

Antolaketa konplexua du erlauntza batek; konplexua eta aldi berean eraginkorra. 50 eta 60 mila erle inguru izaten dira erlauntza batean. Horiematik gehienak erle langileak dira, 5 mila besterik ez erlamandoak eta bakarra, noski, erregina. Erlamandoak, erle arrak alegia, erregina ernaltzea dute helburu bakarra. Erreginak, berriz, arrautzak jarri eta horrela populazioa mantentzea eta azkenik, langileek, erregina zaintzeaz gain, erlauntza garbitu eta larbak zaintzea ere izaten dute beren kargu. Gauzak horrela, erreginak 1500 eta 2000 arrautza inguru jarri behar ditu egunero. Erle langileek prestatzen duten erregina jelearekin elikatzen da erregina, eta horrela bere tamaina handiago izateaz gain, bere bizi iraupena eta gaitasunak ere apartekoak dira. Lau edo bost urtera iristen da erreginen bizi iraupena, erle langileena, udan, berrogei egunetara mugatzen delarik. Erlamandoak, berriz, erregina ernaltze-

an hil egiten da eta bizirik gelditzen direnak udazkenean hil edo kanporatzen dituzte.

Erlauntzaren barnean ematen den gizarte hierarkizatu honek, naturarentzat eta baita gizakiarentzat oso mesedegarriak diren produktuak izaten ditu emaitza gisa, apiterapia izeneko medikuntza metodoan erabiltzen direnak.

Probetuzko produktuak

Erlauntzaren mantenurako, erreginaren elikadurarako, piztietatik defendatzeko eta beste hainbat eginkizumetarako sortzen dira produktu hauek eta gerora gizakiak bere osasunerako erabiltzen ikasi du. Ezitia, polena, propolioa, erregina je-

lea, argizaria, pozoina eta larbak dira erleek sortzen dituzten produktu horiek, eta neurri batean gizakiarentzat probetuzkoak direnak. Luis Mari Intzaren hitzetan «eztia zauriak eta gaixotasunak sendatzeko produktu bikaina da, oso bakterizida ona eta osasunerako oso lagungarria».

Hala eta guztiz ere, produktu hauek, naturari berari egiten omen diote mesede handiena. Nazioarteko Elikadura eta Nekazaritza (FAO) erakundeak eginiko ikerketa batean ikusi da, erleek, aipatu ditugun produktuekin eginiko aportazioa baino 25 aldiz garrantzitsuagoa dela polinizazioaren bitartez natura zaintzeko egiten duten lana. «Zoritzarrez, egunetik

egunera naturaren osasunari buruzko berriak etsigarriagoak dira.

Gizakiaren astakeriak gero eta handiagoak dira eta produktu transgenikoen sortzaileak, kalte handia egiten ari zaizkio bai erleari eta baita naturari orokorrean», dio Intzak. Prozesu transgenikoetan, erleek egiten duten polinizazio naturala ekiditzen saiatzen dira, eta horrela erleari kalte handia egin zaio. 99. urtean Frantziako eguzkiloreei botako kautxu deribatuekin egindako produktu batzuen ondorioz, erle populazioa ikaragarri jaitsi zen eta gobernauk produktu horien erabilera debekatu zuen. «Urtarrilean Madril eniginiko erlezain eta ekoizleen bilera batean gai hau asko landu zen eta populazioak izugarri galzten ari direla ikusi genuen», dio erlezain tolosarrak, eta aldi berean Albert Einstein zientzialari famatuaren hitzak dakartzatza gogora: «Erleak desagertuko balira, gizakia 4 edo 5 urtean desagertuko litzateke». Alde horretatik, erlearen inguruan lanean dabilen jendearen kezka ulertzeko da.

Apiterapia saioak

Apiterapiaren gaiari berriro helduz, maiatzerako, Gipuzkoako Erlezain Elkarteak eta Mendikoi Elkarteak, apiterapia saio batzuk antolatu dituzte Fraiso-rosko eskolan. Bertan gonbidatua nagusia Hugo Agirre zirujau eta apiterapeuta argentinarra izango da. Intzaren hitzetan «guk jende guztia saio horietara joatea nahi dugu, baina batez ere sendagile eta osasunaren munduan lan egiten duen jendea joatea, propolioaren erabilerak ezagutu ditzan; antibiotiko natural aparta da». Ezti komertzialen kalitateaz galdeztan, honela mintzatzen da Intza. «Eztiak bere propietate guztiak galtzen ditu hainbat enpresa handiek egiten duten pasteurizazioarekin; 45º tik pasatzean, gozotasuna besterik ez zaio geratzen hain aberatsa den produktu honi, bere propietate onenak galduz».

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Helbururik baduzu?

Profesionalak hezituz

943 316 900

JARDUNALDIAK, ATEAK ZABALIK.

Apirilaren 13an. Orduak: 12:00etan eta 18:00etan.

<p style="font-weight: bold; font-size: 0.8em;">OSTALARIETZA ETA TURISMOA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Jatorria arloa. ■ Sukalderitza (EM). ■ Jatorria eta tabernekko zerbitzuak (EM). ■ Gozogintza eta okingintza (EM). ■ Sukalderi-laguntzailea, I. maila. ■ Ostalari arloa. ■ Bidaiar agintza. ■ Turismo-informazio eta merkataritza. 	<p style="font-weight: bold; font-size: 0.8em;">INFORMATIKA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Informatika-sistemen administrazioa (A eta D). ■ Informatika-aplikazioen garapena (A eta D). ■ Sistema informatikoen ustiaketa (EM).
<p style="font-weight: bold; font-size: 0.8em;">MERKATARITZA ETA MARKETINA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Nazioarteko merkataritza. ■ Merkataritza-kudeaketa eta marketina. ■ Merkataritza (EM). 	<p style="font-weight: bold; font-size: 0.8em;">ADMINISTRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Administrazioa eta finantzak (A eta D). ■ Administrazio-kudeaketa (EM-A eta D). ■ Erakargarritza. ■ Bulego-laguntzailea, I. maila.

www.cebanc.com

Cebanc-Cidea

FORMACIÓN PROFESIONAL • LANBIDE HEZIKETA

Bento Pasealekua, 50 • Donostia

TOLOSA ▶

Euria azokan
eta inguruko
mendietan
atzo goizean

Egun hauetako euririk positiboak izan dira; perretxikoen eskaintza hasi da

PABLO ALBERDI

Hotza eta euria izan ziren nagusi atzo Tolosako azokan. Lurrak uraren beharra zeukan, eta dirudienez, egun hauetako euririk positiboak izan dira. Perretxikoen eskaintza adibidez, atzo hasi zen azokan, eta dirudienez, datozen asteetan, kopuruak gora egingo du izugarri. Atzo hiru kila izan ziren eta kiloak 140 eurotan saldu zen. Barazki eskaintza ere oso zabaldua izan zen. Oraindik falta da babak eta ilarrak agertzeko, baina euri hau ez da txarra izan hautentzako. Animalien eskaintza ere handitu zen atzo bi berrikuntzekin. Pintadak eta antzarrak iritsi ziren atzo azokara eta berez zabala den zerrenda handitu egin zuten. Pintadak 4,3 eurotan saldu ziren eta antzarrak 11 eta 12 eurotan.

ATZOKO AZOKA ▶

Gaia	merk.	gares.
Babarrunak	8,00	12,00
Tomatea	3,00	4,50
Letxu	1,00	-
Patata	0,66	1,00
Ardi gazta	12,00	14,00
Behi gazta	7,00	7,50
Sagarra	2,00	3,00
Arrautzak	3,50	-

TOLOSA ▶ FUTBOLA

Aukera ugari izanda,
Tolosak berdinketa
besterik ez du lortu

Mutrikuarrek ez zuten ia ezer erakutsi Berazubín; hamar jokalarirekin bukatu zuten Tolosak, Zuloaga bidali zutelako

JOXEMI SAIZAR

Partidu erraza zirudien —Mutriku 12. postuan zegoen sailkapenean eta han 0-3 irabazi zion Tolosak—, baina Goren mailako liderrak etxean berdinketa besterik ez zuten lortzerik izan, inoiz ezin daitekeela fidatu frogatuz. Hala ere jokalaritza tolosarrei ezin zaie akatsik leporatu: aukera ugari izan zituzten Bernabe atezainaren aurrean, baina zutoinek eta langak ere jokatzeko dute eta aukera batzuk deuseztatu zituzten. Arbitroak ere bi penalti seinalatu gabe utzi zituela uste dute jokalariek.

Lehen zatia ondo hasi zen. 13. minutuan arbitroak seinalatu gabe utzi zuten Regillagari egindako penaltia eta 26. ean Regillagari kornerra ateratu eta Pradosek botatako baloiak langa jo zuen, baina 36. ean Lasak 1-0eko sartu zuen, Oruek eskuinetik zentratutako baloi bat errematatuz.

Bigarren zatian berriro agertu zen zorritzara Berazubín tolosarrentzat: kornere batean, 47. minutuan, langa jo zuen berriz Aimarrek botatako baloiak; 50. ean Pradosek berriro langa jo zuen; eta 70. ean Lasak zutoinean jo zuen. Baloiak ez zuten sartu nahi mutrikuarren atean. Tarte horretan, kon-



Tolosako futbolariak partidu aurretik berotzen; beharra bazen. J. SAIZAR

TOLOSA ▶ 1

Tolosak. Apezetxea; Lacalle (81m. Doiartzabal); Unai; Ion; Aimar; Artola; Orue; Prados; Lasa; Regillaga (83m. Aranguren) eta Blanco (57m. Zuloaga).

Mutriku. Bernabe; Arrotero; Azkarate (63m. Otxagabia); Etxaburu (75m. Bosque); Lopez; Mugerza; Agirrebea; Osinalde; Garalde; Basurko (56m. Zubiaurre) eta Arreitunandia (71m. Prieto).

Golak. 1-0: Lasak (36m.); 1-1: Arroterok (65m.).

Arbitroa. Silguero, Ordoñez eta Arroniz marrazainekin. Bigarren txartela ateratu zion Zuloagari 74. minutuan.

traeraso batean, Arroterok berdinketa lortu zuen 65. minutuan. Askoz gehiago ez zuten erakutsi Mutrikuk. Handik gutxira arbitroak Zuloaga bidali zuten zelaitik bigarren txartela ateratu. Azken hogeita minutuak hamar jokalarirekin egin be-

MUTRIKU ▶ 1

har izan zituen Tolosak, baina hala ere ez zuten etsi. Ia bukatu, 88. minutuan, arbitroak beste penalti bat seinalatu gabe utzi zion.

Datorren astean Oiarzuneko jokatu du Tolosak, irabazteko aukerarekin.

LEITZA ▶

Bengoetxea VI.a,
txapelketatik
kanpora

43 minutuko partida triste eta kaxkarrean, Oinatz Bengoetxeak 22-12 galdu zuen Iruñean Oskar Lasaren aurka banakako eskupilota txapelketan. Lasa III.ak hamaika tanto egin zizkion sakez eta nahikoa izan zuen gazte leitzarra menderatzeko.

ALEGIA-BERASTEGI ▶

Arazoak N-1ean
eta A-15ean
eguraldiarengatik

Atzo elurrak eta eguraldi txarrak hainbat arazo sortu zituen A-15 eta N-1 errepideetan. Alegia eta Ikaztegieta artean kamioi batek hesia hautsi eta Gasteizerako karrila itxita egon zen ia egun osoan, ilara luzeak sortuz. Berastegin berriz, kamioi batek matxura izan zuen eta ilara sortu zituen Iruñerako karrilean.

TOLOSA ▶

Akordeoi ikasleak
elkartuko dira
gaur Beotibarren

Udal Musika Eskolak, Udalak eta Hauspoz elkarteak antolatuta, gaur Euskal Herriko III. Akordeoi Topaketa egingo dute Tolosan. 26 eskola elkartuko dira, guztira 350 akordeoijole eta 200 abeslari inguru, perkusioz eta teklatuaz lagunduta. 12:00etan kalejira egingo dute eta 13:00etan, kontzertua Beotibar pilotalekuan.

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

**SHANTI
KIROLAK**
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

TOLOSA ▶ PILOTA

Garziandia txapelaren jabe egin dira Cerezo eta Huarte

Beotibar pilotalekuko harmailak jendez beteta zeudelarik, sariketari bukaera eman diete atzoko jardunaldian, sailkapeneko lau hoberenen jaialdiarekin

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdiartean jokatu zen Garziandia lau t'erdiko pilota txapelketako azken jardunaldia eta txapelaren jabeak ere erabaki ziren: Cerezo eta Huarte dira aurtengo txapelak.

22 eta 15eko azken emaitza markagailuan zela, Jabier Mikelperizena eta Iban Zubieta beratarrei gain hartu zieten Aitor Cerezo lesakarrak eta Toni Huarte amaiurtarrak, azkenean txapela jantzi.

Hasierako sarea ere urdin izanik, partidu guztian zehar erabat erasoan aritu zen Cerezo, pilota indartsu erabiliz eta Huartek, berriz, ederki babesitu zituen atzeko koadroak. Lanean ongi aritu ziren eta emaitza ere beren alde atera zen azkenik. Bikote gorriari dagokionez, Mikelperizenari



Finaleko lau pilotariak lanean sutsu aritu ziren atzokoan. JAIONE ASTIBIA

botatoko pilota batzuk gaizki atera bazitzaizkion ere, honek asko lagundu zion Zubieta bere atzelariari, hain zuzen ere eskuetatik ez baitzegoen oso ongi ere eta esate baterako

sake mordoxxa airez erantzun zituen. Pilota batzuk, gora, pasa, ere egin zituzten.

Hala ere oso tanto politak ikusteko aukera izan zen finaleko partidua honetan, ikusleen

txaloak eta harridura eraginez: lau pilotariak elkar oso ongi ezagutzen zuten eta pilotarekin jostaketan ibili ziren elkarren dekadak hegan joanez harra-patuz.

Azkenean, Cerezok, Berako Gure Txokoakoa, eta Huartek, Baztango Txarutakoa, izan ziren garaile eta txapeldun. Aipatzekoa da Cerezori eman ziotela, finaleko jokalaririk hoberenaren saria ere.

Bestalde 3. eta 4. lekuko saridunak ere atzo erabaki ziren: Onsalo aresoarra, Aurrerakoa, eta Mujika beasaindarrak, Aurrera-Saiazekoa, irabazi zuten 22-19ko emaitzarekin, txapelketako 3.ak suertatuz; Mugu-ruza-Dominguez 4. gelditu ziren. Oso partidu ona jokatu zuten, leihatua eta bizia; askotan arriskatu eta zabalean tanto mordoska egin zituzten.

ERREAKZIOAK ▶

TONI HUARTE
TXAPELDUNA

«Elkar ezagutzen dugu, gehiegi agian»



«Iazko txapeldu-nordearekin, Cerezorekin jokatzen zori handia izan dut eta 22ra

ailatuz gero beti gustura egoten da bat, nahiz eta asko sufritu behar izan hori lortzeko. Laurok ere elkar ezagutzen baitugu, gehiegi. Gaur egun hoberena izan duenak irabazi du. Guri suertatu zaigu».

IBAN ZUBIETA
TXAPELDUNORDEA

«Hutsik gehienak gaur egin ditugu»



«Neguan asko sufriritzen dut eskuetatik eta justu antzean etorri naiz eta gaizki

bukatu dut. Baina ez dago aitziarik. Beti eurek dominatu gaituzte eta guk, berriz, txapelketa guztiko hutsik gehienak gaur egin ditugu: tanto eginak baino galduta-ko asko izan da».

UNAI ONTSALO
HIRUGARRENA

«Ez genuen espero honeraino iristerik»



«Gustura gelditu gara oso, ez bainuen honeraino ailatzerik espero ere».



Jende ugari EHAKen alde, Tolosa bizirik-ek deituta

TOLOSA ▶ Eguraldi petrala izan arren, jende ugari elkartu zen atzo eguerdian plaza Zaharrean Tolosa Bizirik plataformak egindako deialdiari erantzuteko. Bertan egindako ekitaldian, plataformako hautagaiek EHAKen aldeko bozka eskatu zuten datorren igandean egingo diren EAeko hauteskundeetarako eta argitaratu berri duten aldizkaria banatu zuten. JOXEMI SAIZAR



Txirrindulari gaztetxoak ibilian hotzari aurre eginez

VILLABONA ▶ Inguruko mendi etan elurra eta kale-artean haize fina zebilelarik, txirrindulari gaztetxoek ez zuten batere beldurrik izan eta Villabonako kaleetan barreneko zirkuituan biraka ibili ziren, 8 urtetik hasi, eta alebin eta infantiletako adinera arte: karrerako txirrinduz edo mendikoz; mutiko edo neskato, guztiek erantzun zieten Irrintzi taldearen deia. J. ASTIBIA

iragarki laburrak ▶

Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soralueze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.

Haur Hezkuntza. Gaztelerako 106 leku, euskarako 52. Doako

informazioa. 943 43 41 27.

Fisioterapeutak. Laboratorioa, argi-izpi teknikoak, erizain laguntzailea. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak,

sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu: 943 43 41 27.

Peioiak. Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,

Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu. 943 43 41 27.

Gidariak. Hurrena sartzeko: udaletxeak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.

Irakasleak. 465 leku libre. Hurrengo

deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

Udaltzainak. 25 leku libre udaletxeetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Iruñ, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

Tolosako Udala

IRAGARKIA

TOLOSAKO UDALAREN ZAT Obra, Zerbitzu eta Mantenimenduko Txoferra ALDIBATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA

Tolosako Udalek, Obra, Zerbitzu eta Mantenimenduko Txoferra aldi baterako aukeratu behar du, oposizio-lehiaketa sistemaren bitartez.

Dinarriak eta eskaerak egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude inentsestuan eskura, Plaza Zaharrrako 6 A zkin, 2005/03/28ko 57 z.b. Gupuzkoako Aldizkari ofizialean, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2005eko apirilaren 21ean bukatzen da.

Tolosan 2005eko apirilaren 4an, ALKATEA JOKIN BILDARRAZ SORRON

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko apirilaren 10a, igandea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaboketa, Aldura, Alburuz, Aingua, Aliza, Alzo, Ametzola,
Araio, Arriaga, Balmorica, Belduza, Berango, Berrota, Etxauri, Herriak,
Ibarra, Iruja, Lertza, Leizorua, Lizartza, Orendain, Orma, Tolosa, Vilabona,
Zorion **bestenik!** Leizorua, Euzkera Belduza

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Euzko
Jaurerria,
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzera

07

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. San Bartolome jaiak antolatzeko bilera bihar 19:30ean Kultur Etxean.

Orendain. Andres Urrutia notarioaren testamenduari buruzko hitzaldia 12:30ean udaletxean.

Tolosa. Gipuzkoako XXXI. Amuarrain eta IX. Barbo arrantza txapelketak Oria ibaiaren barrutian benjamin, alebin eta infantil mailetan.

Tolosa. Euskal Herriko akordeoi ikasleen III. Topaketa: 12:00etan kalejira eta 13:00etan Beotibarren.

Tolosa. Gerontologikoaren aldeko plataformak hitzaldia emango du Harizpe elkartearen bihar 19:00etan.

Tolosa. Alberto Añño orientatzaileak Babilerra eta Heziketa Zikloei buruzko hitzaldia emango du Orixo Institutuan bihar 19:00etan.

Vilabona. Loatzo eta Tobera eskoletako ikasleak. Bihar 18:30ean Gurean.

ZINEMA

Tolosa. *Robots* gaur 17:00etan eta 19:30ean eta *Entre copas* gaur 22:30ean eta bihar 19:30ean eta 22:30ean. Leidor zineman.

Tolosa. *John Q* 19:00etan Bonberenean.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶

BARDEAK ▶

Edurne Aranburu eta Josu Ozaita (Ibarra).

«Aurten Euskal Herrian geratzea erabaki dugu, errepedeko kilometro luzeez aspetuta. Bardeetan izan gara, toki paregabea bizikletaz ibiltzeko eta eguraldi ona segurantziz topatu nahi dutenentzat. aipatu, Euskal Herria ezagutu beharreko mundu txiki bat dugula: mendia, itsasoa, basamortua... Defendatu beharreko altxorra», dio bikote honek.



LANDAK ▶

Elena Uranga (Tolosa).

«Vieux Boucau-n lore pila bat daukate, herri osoan zehar. Hau gustatu zitaidan eta horregatik atera nion argazkia», dio neska tolosar honek, argazkiarekin batera lehiaketara bidali duen idatzitxoan.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Alaiz eta Julen.

Bihar 6 urte eta gaur 3 urte. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Izaskun Berasategi Etxeberria

(Tolosa). Gaur urtebete. Zorionak aita, ama eta Maialenen partetik.



URTE ASKOAN

Mirian Aizpurua (Iruja).

Bihar 9 urte ospatzen ditu. Familiaren partetik muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Aitona Julian (Lizartza).

Gaur 75 urte. Muxu handi bat zortzi biloben partetik.



URTE ASKOAN

Janire Mujika (Leaburu).

Bihar 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat Leaburuako familiaren partetik.

HITZA,
zorion agurren
tartea

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

Telebistako SPOTAK

APIRILAK 10, IGANDEA **etb 2** 12.55tan
etb 1 13.55tan

APIRILAK 12, ASTEARTEA **tve** 19.45tan
etb 1 00.00tan
etb 2 00.30tan

APIRILAK 13, ASTEAZKENA **tve** 19.45tan

APIRILAK 14, OSTEAGUNA **tve** 19.45tan

DIRU LAGUNTZA / AYUDA ECONOMICA
Euskadiko Kutxa / Caja Laboral
3035 0083 20 0830096411

BOZKATU

EHAK

DEMOKRAZIA
eta **BAKEA**

GAUR
MITINA
DONOSTIA
arratsaldeko 6etan
ATANOI III
PILOTALEKUAN